

## IRAILEKO EGUN HAI EK

*Parisen, 1920ko urriaren 7an*

Jean-Claude ene lagun estimatua:

Azken zurrumurrak entzungo zenituelakoan, ene lagun mina, ene anaia, neuri dagokit zuzenki egia osoa kontatzea ezer ezkutatu gabe, ezer zuritu gabe bion artean dugun leialtasunari zorretan ez izatekotan. Zure osasun egoeraz jakinaren gainean nago eta ez da nire asmoa zure indar apurrak ene arazoetan xahutu ditzazun ezta inolako buru hausterik sortaraztea zure izpirituan, baina Gerrate Handia bukatu zenean egin genuen promesari atxikiz, elkarri bihotzean geneuzkan une ilun eta argien berri ematera natorkizu oraingoan.

Soldadu ofiziora behartu gintuzten instant hartatik, sarraski iguin ohore gabeko pasadizo guzti haiek ahaztu ezinik, ez dizut berriz aipatuko elkarrekin igaro genituen pasarteetan oinarritzen dela gure arteko lotura, gure arteko anaitasuna eta estimazio horretan zeu zaitudala ene arimako zauriak uler ditzaken bakarra.

Ondo gogoratuko duzu Eliserekin ezkondu nintzen eguna, ezta? Igarotako urtearen apirilko egun argitsu batetan izan zen. Urte ta erdi baino ez, baina zenbat denbora igaro den jadanik! Ez dut ahaztuko gurekin izan ziren kamaraden zorionak eta bizkarrean ematen zizkidaten kolpetxoak ene zoriona eta subertea gorai patuz. Ez dut ahazterik ezta, zeu izan zinela nigana etorri zen azkena eta ezer esan gabe besarkatu ninduzula; baina zure begietan zoriona baino gupida gehiago nabaritu nuen, ez dakit zergatik, eta gaur egunekoa jakinik egia aitortzerakoan arrazoian zeundela esango nizuke. Gu bezelako gazteontzat (hogeita lau urte nituen, zuk baino bat gehiago) gerlako zauriak eta orbanak ez dira ezkontza batez estaltzen, fronteko ospitaletako benda txuria izango balitz bezela obusaren metrailak irekitako zauri odoltsuan, bendak ezin izango du oztopatu odol likatsua ren isurketa.

Elise eta bion ezkontza porrotara zuzendua zegoen lehen momentutik eta hori zuk bazenekien eta beharbada, neuk ere. Beraz, zergatik ezkondu ginen? Nik neuk erantzuna baneki! Agian, hori zelako gugandik espero zitekeena, betidanik ezkon-gaiak izan ginelako; gure familietan beste askotan bezelaxe izandako lehengusu, seme,

anaia, aita hilak ezkontza batez salbatuak izango zirelakoaren esperoan-edo, batek daki. Dena den, nere borondatea eramaten utzi nuen eta beste batzuren nahiak (Eliserena batez ere, baina ez diot inolako errurik leporatzen) nereaz gainditu ziren.

Gerrateko esperientzia jaso ondoren, aldaturik nengoela esaten ohi zidan Elisek eta baita senitarteko gehienek ere, baina nola ez aldatu ikusi eta egin behar izan genuen guztia kontutan izanik? Triskantza haiek, odol isuriek, gorpu puxkatuek espantuzko mamu bezela agertzen zitzaizkidan gaueko lotaldian eta gutariko askok bezela, nere nerbioak gero eta gaizkiago zeuden.

Elisek umeak izan nahi zituen, hiru edo lau haur eder etxe barruan, bere besoetan, altzoan, pasabideetatik korrikan. *“Zertarako? - galdetzen nion - beste gerla zikin batetan bizitza emateko entelagatzen ez zituzten ideal antzuegatik? Ezagutu ez eta inoiz kalterik egin zion beste gazte bati arerio izena jarri eta tripa baionetaz irekitzeko? Hezur zatikatu kirastuen gainetik pasatzeko? Ez, hori ez, ez zen jaioko umerik ene hazitik”*. Nere ezetz borobilek eraginak izan zituzten gure arteko harremanetan, batez ere sexuaren unean: oheratzen ginenean gauzak ez zihoazten denek espero bezela, edo behintzat nik espero bezela. Egia esan, Eliseren gustoko esperientziak ere ez zirela izan aitortu beharrean nago, bidezkoa izanik.

Etzanik mantentzen zen, begiak sapaian iltzaturik izango bazituen bezela. Musukatu egiten nuen leunki begi itxietan, ahoan eta lepoan, esku urduriekin bere kamisolaren lokarriak askatzen nituen bitartean. Ez dakit nola azaldu, baina trintxeretan geundenean etsaien lerroetara jauzia egiteko prest nuen urduritasun bera sentitzen nuen Eliserekin ohean. Esku dardartiek, lokarriak askatuz gero eta arropak gelako txoko batetara jaurti ondoren, bere gorputz zuria errekorritzen zuten, fronteko mapa izango balitz legez. Titietako mendixkek, haranek eta ibaiek zeharkatzen zituzten Eliseren gorpuaren atal oroak; titiburuak ez ziren ametrailadora edo obusen kokalekuak baino, eta nire eraso mihiarekin burutzen nien. Jadanik, ene zakilak harrotasunez altxatzen zuen burua, artileriako kanoia, eta Eliseri oparitzen nion bere esku ahurretan jartzen niola ene mihiak aho erdi irekian sartu nahian zegoen tartean, eta ene arma goitik behera laztan zezala eskatzen ohi nion, estutasun samur eta

bortitzean. Errejimenduen uhinak erasora, mihiak gora eta behera ekiten zuenean, izerdi perlak agertzen zirenean titietako haranean xurgatu egiten nituen, kantinploretako ura bezela. Ene atzamar puntak sabela errekonoziti egin behar zuten, erasoari ekin aurretik eta ene mihiak zilborrean gelditzen zen une batez deskantsu bila eta beherago mogiduz, azkar, eraso azkarrak izan behar dira frontean, besoekin Eliseren izterrak zabalik mantentzen nituen nere burua pubiseko basoan galdu eta aurkitu arte. Eliseren auhenek erritmikoki jotzen zuten ene belarrietan eta halako bakoitzarekin infanteriako mihiak aurrera ekiten zion, tolestura oroak arakatzuz, esploratuz, gaudituz, aluaren sarrera bunkerrarena izango balitz, baina sarrailak irekitzen hatz trebe eta adituak ziren nireak, bat, bi hatz sartzen nizkion bere hezetasuna nola aberasten zen nozitzen nuela. Hatzak zurrupatu egiten nituen eta berriz erasora, oraingoan mihi umela izango zen Eliseren behe-ezpainak handituak bustiko zituen, ene listua eta bere zukuak bat eginik. Ene arnasketa azkartzen eta sakontzen zihoan, aire beroa xurgatu ondoren beroagoa botatzen nuen, eta aide bolada hoiek Eliseren koba-zuloa behin eta berriro astintzen zuten. Ene ahoa Eliseren aluan okupaturik nuenean, berak ileetan endredatzen zituen atzamarrak eta plazer uhin bakoitzean nola tiratzen zuen nabaritzen nuen, urrumaka katua sutondoan bezela. Auhenek ozenagoak ziren eta ezin zuela gehiago xuxurlatzen zuen, zakila sar niezaiola erregutzen zidan. Ondo nekien zer pentsatzen zuen eta azken zurrupada emanik jadanik haundituta zeukan klitoris zabukariari, esku batez ene zakila hartzen nuen ongi bideratua izan zedin. Burua baino ez nionean sartzen, bizkar oroa tolesten zuen, zubi baten begia izango balitz legez eta atzazalekin ene bularrean markak uzten zizkidan, itxaron, orain bai, orain bai, eta barrurago bultzatzen nuen zakila, osorik Eliseren barnean izan arte. Ipurdiko masailetatik hartzen nuen eta luma arin bat bezela altxatzen nuen beso artean, Eliseren ahoak koska egiten zidala lepoan edo belarrietan. Dantzaldi eroko mogimendu zabukariak hasten ziren bion pelbisak igurtziz eta berotasuna ene sabelean jaiotzen zela igartzen nuen, gorantz, eztarrira, masailetara, buru oroa betetzen zuela, gero biratu eta beherantz zihoala, Elisek ia garrasi egiten zidan ene belarria bere ahoan sarturik, bai, orain goaz maitea, zatoz nirekin orain.

Beherako bidea harturik ene barneko goritasunak leher egin behar zuen eta hazia Eliseren alu barnean sakabanatu baina trintxeretan gizonak jauzi egin eta erasora joateko jotzen nuen txilibitua ene buruan estandatzen zen lehenago, eta esku batez zakila hartu eta Eliseren gorputz barrutik ateratzen nuen juxtu korritu baino lehenago, juxtu ene hazia Eliseren jabegora pasatu baino lehenago, eta bere gorputz zuria zuriagotu egiten nuen, esne bataioan.

Sarritan, Elise negarrez hasten zen eta lotsaz maindireekin estaltzen zuen aurpegia, oraindik masailak gorritzatuta zeuzkan aurpegia. Etzela naturala, berak umeak nahi zituela izan edozein familiak bezela, edozein emakumek bezela eta nik eskubide hori ukatu egiten niola behin eta berriro. *“Ez da naturala”*. *“Naturala ez dena, - erantzuten nion - ume errugabeak mundu gaizto hontara ekartea bai ez dela naturala”*.

Horrelaxe abiatu zen gure lehen ezkontzako urtea eta momentu batean, Elisek barneratu zuenean nigandik ez zuela umerik sortuko, gure sexu harremanak urriagotzen joan ziren azkenean desagertu arte. Egia aitortu behar badizut Jean-Claude ene anaia, ene ustez Eliserentzat bere sexualitatea umeak izateko aukerarekin uztartzen zuen; ordea, niretzat bestelakoa zen, gatazka haiek, izerdi eta bihotz taupada ero haiek, gorputzeko giharrek plazerra bilakatzeko maniobrak baino ez ziren, bion plazerrak soldadu garaiko mamuak uxatzeko erabilten bait nituen, azken orgasmoan hildako gizaki guztiak bapatean lurperatuko nituen itxaropenean.

Beraz, nahiz eta etxetik kanpo ezkonberri gazteak eta zoriontsuak denen ustetan izan, etxe barruko eta gure arteko lotura gero eta askeagoa zen, azkenik ezer gutxi baino ez gintuela elkarrekin mantentzen.

Gaueko aurpegi hilak zurbilagoak ziren Pariseko udako sargorietan, loa eragozten zidaten eta izerdiz ondo bustita, blai eginda, jaikitzen nintzen goizero. Ezin nuen lorik egin, ezin nituen guda zelaian hildakoen garrasiak berriro entzun ene buru barnean. Hortarako, oheratu aurretik kafe beltza ia litro erdi hartzen hasi nintzen, iratzarrita mantentzeko ene izpiritua. Baina egunak pasa ahala, gorputzak ezin du horrela jarraitu eta biok ondo baino hobeto dakigu (ikusitako frontean) lo gabe dagoen gizakia edo hilik edo erotuta bukatzen dituela bere egunak.

Armadatik lizentziatu ginenean, kapitain gradua lortu nuen eta horri esker, mediku militar famatu batengana joateko aukera izan nuen. Bai, ez nintzen izan lehena ezta azkena ere, erran zidan mediku-koronelak, gerrate hartatik bizirik atera zirenek ahaztu ezinik bizi-irauten ikasi behar zuten. Deskantsua eta sosegua agindu zidan, eta morfina loaren deabruak uxatzeko. Behar nuen lasaitasuna berrezkuratzeko itsas-haizea eta itsas-bainuak zirela komenigarrienak, izpirituaren oreka lortzeko edo behintzat malenkonian edo erokerian burua ez galtzeko. “*Zoaz Miarritzera, kapitain - esan zidan - “itsasoko haizea duzu lasaigarririk hoberena eta horrez gain, nahi izanez gero, baduzu bertan Pariseko hainbat familia ospetsu, izen onekoak, beraiekin bizitza soziala konpartitzeko. Sosegua eta harreman sozialak aldi berean.”*”

Beraz, maletak egin eta Austerlitzeko geltokian trenea hartu genuen Hendaiaraino. Bidai luzea eta nekatua zen, baina Elise pozik zegoen aldaketarekin. Miarritzeko etxeraino taxi batetan egin genuen bidea. Abuztuaren amaiera zen eta uda-sasoia ia bukatzeaz zegoen, koronelak aipatutako familia asko Parisera itzuliak ziren baina oraindik bazeuden burges familia frantsez batzuk, eta ezustea niretzat, Errusiatik ihes egindako bost-sei familia, Miarritzeko “Grand Hôtel”-a Mosku edo San Petersburg-eko bizitza sozialaz betetzen zutela. Hizkuntza etzen arazoa, beraien artean frantseza erabilten ohi zuten betidanik goi mailako hizkuntza legez eta hoteleko saloiak oso animatuak zeuden, burgesak eta iheslariak elkartuta solasaldi antzu katramilatsuetan.

Etxe apartatua alokatu genuen, nahiko eroso, baratzea atzekaldean eta aurreko sarrera arrosa gorri eta bioletaz josita, limoiondo gazte batek bere lurrina hedatzen zuen etxe guztira goiz eta arrastietako ordu lasaietan. Ez zen hain baztertua herrira zaldi-gurdiz (oraindino kostaldean automobil gutxi daude) joateko beharra izateko, paseo eder batez hurbiltzeko baino. Oso gertu, lur eta harezko zidor estua amildegietatik aurrera kostalde osoan dauden hondartza edo kaleta txikien gainetik pasatzen zen, eta bidexka hori hartu nuen miatzeko betekizun bezela. Nere ordurik gogokoenak arrastietakoak ziren, eguzki doratua oraindino zeru oskarbian zegoenean eta haize leunak belarxkak hara eta hona mogitzen zituenean, orrazi erraldoiak lurraren geruzako estalkiak laztanduko balitu legez.

Elisek laister burutu zituen familia burges eta hoteleko atzerritarrekin hartuemanak eta ia egunero etortzen ziren gure etxera bisita egitera eta eguzkia nola ezkututzen zen gozatzerara, egia esaten badizut hortarako gure etxea tokirik egokienean kokatuta baitzegoen. Edo bestetan zaldi-gurdia bidaltzen zuten Elise eta biok beraien egoitzetara joan gintezen. Zer esanik ez, halakoetan, edozein atxakiz alde egiten nuela amildegiko zidorretatik zehar. Geroago enteratu nintzen Elisek nitaz esandakoaz, nire bizitza sozialerako abilezia eskasa azpimarratuz: gerra trauma nuela eta bakardadea nahiago nuela nerbioetako sofrimendua gainditzeko.

Nire amildegi gainetiko paseo batetan, guztien begiradetatik ezkututzen zen urrezko harea zuen kaletatxoa aurkitu nuen. Aldapa batetik, apenas ikusi baino igarri gehiago egiten zen bidexka zehar batek hareraino jaistea bermatzen zuen. Zerbait disdiratsuk ñir-ñir egin zidan begietan eta begirada arretatsuago batez, kaletatxoaren ezker aldean, harkaitzen artean arropa batzuk zeudela igarri nuen. Arraroa egin zitzaidan eta nere posizioa ez zenez onena, aldapatik behera jaistea erabaki nuen. Bai, arropak ziren eta emakume batenak, eta ez zeuden edonola botata itsasoko olatuek ekarritakoak izan balira bezela. Ez, mimo haundiz tolestuak eta gordeak, jaubearen zain zeuden. Nor...?

Eta galdera hori ene buruan nuela, ikusi nuen itsasotik ateratzen greziar jainkosa bat bezela: eguzkia oraindik horizontean etzan gabe, urrezko izpiak jaurtitzen zituen ur gainazalera eta berauen erreflexuak harkaitzetara heltzen ziren. Ulyssesi aurkeztu zitzaikion sirenak bezela halaxe agertu zitzaidan emakume gazte hura nere begi erdi itsutuen aurrean. Inolako lotsa adierazi gabe, jaio zen bezela, ile bustiek bizkar osoa ipurdiraino edo umeltzen ziotela, bekokitik, betiletik itsas apurrak erortzen zitzaizkiola, bular gazitu perfektuak ur disdiratsuz borobiltzen zirela, sabel leunetik behera ur zidorrak ereiten ziren urrats bakoitzean nigana hurbiltzen zenean. Nigandik beso baten luzeratarra gelditu zen begi urdinak nireetan finkatuz. Begi argiak aurpegi zuri ederrean, ezpain gorrietan oraindik ur tantak, titiburu arrosatuak tente eta sendo, ile errubioa (pubisekoa ere, ondo ikusi nuen-eta). Nire gorpua berea eta arropen tartean kokatuta zegoen baina ezin nintzen mogidu nengo tokitik. Amets egiten nengoela jakin gabe,

nor zen galdetu nion eta kristalezko ezkila batetik ateratako farreak erantzun zidan: “*Afrodita*”, eta doinuaz errusiatarra zela ohartu nintzen, hotelan ostatu hartu zuten haietakoa zela. Besoa luzatu nuen eta eskuarekin hartu nizkion buruaren alde batetik zintzilika zituen ile bustiak eta laztandu egin nituen ileok ene hatzen puntan artean. Gero, askatu eta masaila errekorritu nion, bekokian marrak margoztu nizkion tantan artean, begietara pasatu aintzin. Ene Afroditaren arnasketa sosegatua apenas entzuten nuen eta momentu hartan bitxia iruditu zitzaidan geldotasun irmoan mantendu zen, beharbada nire atrebentzia norainokoa zen jakinminaz. Dagoeneko, kilimak sentitzen hasia nintzen, kilimak urdaila aldetik, hanka tartetik eta berotasun ziztadak ene azaleko poro oroetan. Eskua emakumearen ahora eraman nuen eta ezpain gorritsuak berpasatzen ari nintzela, ahoa erdi ireki zuen eta mihi punta igarri nion. Ene hatz erakusleak aukera hartu zuen eta ahora sartu zen, borondate propioa izango balu legez. Momentu hartararte geldirik zegoen Afrodita, benetako marmorezko greziar estatuen tankeran, baina besoa altxatu zuen eta esku seguru, irmo batez eskumuturretik mantendu zuen ene eskua eta ene hatza bere aho parean eta barruan. Neu ere mogitu egin nintzen, izandako zeinua zerbaiten hasiera emateko balio izan balu legez, eta pausu bat aurreratuz gorputz biak ikutzeko unean egon ziren, berea biluzik eta bustirik, nerea arropen azpian giltzapeturik eta bustirik ere. Elkartze harekin ene zakilaren presioa fraka barruan nabaritu zuen Afrodita, eta pubisa gehiago estutu zuen ene kontra, baina nere barneko sua etzen itsas-uraz amatatuko; aurpegia esku biekin hartu nion eta muxuka jan nizkion gerizen koloreko ezpainak, gure mihiak joan eta etorri amaigabeen errekorri zituzten aho biak, ile bustia ene aurpegira erortzen zela. Hitzak bihurtu gabe, barnetik garrasika zetozten desioaren goriak azaletan, eskuetan, listuan jaio eta garatu ziren; nola edo hala, ene jakea kendu nuen eta Afrodita alkondara txuria, botoiak askatu ordeztu, primitibotasun zeinu bortitzean esku artean hartu eta urratu egin zuen, ene paparrean koska sentikorrek markatzen zizkidala. Zutik geunden biok eta frakak askatu zizkidan esku trebez, eta ene zakila hartu zuen esku artean nik bular sakratuetan hozkada samurren zeinuak ixten nizkiola, Titiburuak xurgatu nizkion, lehen bular batekoa eta gero bestea Afroditaren baiezko auhenek

itsasoko olatuen orro leunekin musika bateratua sortzen zutela. Eskua bularrean jarri zidan eta erabat urrundu ziren gure gorputzak, baina instant xumea baino ez zen, aurpegira begiratu zidan eta zerbait errusieraz esanez (ez dakit errusieraz, baina atoan ulertu nuen) baiezko keinua egin nion buruarekin: hondarraren gainean belaunikatu zitzaidan eta zuzenean ene zakila miazkatzen eta zurruputzen hasi zen, astiro, burutik hasi eta gero eta sakonago. Ileak eta burua laztandu nizkion, eta nire taketa bere ahoan desagertu zenean, Errusiako mendiak, ordokiak, ibai azkarrak itsasoko urazalean ikusi nituen, bai, ahoratzen zuen behin eta berriro, zentimetro bat bera ere utzi gabe listuz blaiturik, ene giharretan, hezurretan plazer uholdeak pilatu ziren ia jasan ezinik, eta une batez gelditzeko erregutu nion; orain neu makurtu nintzen biok hondarrean etzanik geundela eta nere ahoa eskeini nion jainkosari sakrifizio bezela, Afroditarren izterren tartera eraman nuen, hezetasun gaziaren usain sarkorrak animatzen ninduela. Behin eta berriro jolastu nintzen bere klitorisarekin, bere arrakalarekin, behin eta berriro aiene goxoz blaitzen zidan burua ene Afroditak, gaziaren zaporea emakumearen isuritako zuku likatsuekin batera ene mihiak miazkatzen zituela. Ene zakila ere bustirik neukan eta Afrodita begietara begiratu ondoren, zakil-burua alu umelean sartu nion: elektrizitatea izan banu bezela zerbait zurixkatua sentitu nuen zakilaren erotik bururaino, goxotasunez baiezkoa esaten zidala, astiro, bai, sartu kotoizko hasperenekin, setazko urrumekin, argi doratuzko sentazioekin, sartu orain. Gehiago bultzatu nuen, ia erdia baino ez nion kokatu eta Afrodita auheneka hasia zen hasperenez betea, oraindik ez, oraindik ez xuxurlatzen nion, itxoin, itxoin ene jainkosa, esku batez titiburuetan atximur egiten nion bitartean. Bere izterrak ene bizkarrean gurutzatu ziren eta posizio horretan hartu zuen zakilaren azken bultzakada. Atzera pixka bat eta aurrera, atera eta sartzerakoan aluaren tolestura guztiak laztantzen nituen lanari ekin nion, Afroditak murmurioka, gero eta ozenago niretzat zerbait ulertezina zena arnasketa sakon eta azkarragoekin batera ene belarrietara heltzen zitzaidala. Errusiako basoak, kosakoen dantzaldi mozkortuak sutearen inguruan, birakako musika, elurra, elur txuria, elurtzan zaldizko leran gindoazen, azkarrago, azkarrago, haize zuria gure aurpegietan, elur malutak itsasoko



aparrez nahasirik, bai, biok itsaso zurian olatuen gainean, leran, zutik zaldia xaxatuz, zaldiaren trostarekin bat eginik eta nire hazia, Errusiako elurra bezela Afroditaren barnean erori zen.

Dena bukatzean, uretara eskutik hartuta sartzen ginen, gure purifikazio errituari amaiera emateko, olatuekin jolastu eta azken eguzkiari adioa ematen genion, garbi eta bizirik sentitzen ginela arrastiko azken haizearekin, jainkoen erreñuan. Arropak astiro janzten genituenean ez genuen apenas hitzik esaten, elkarri begiradak luzatu baino ez. Lagundu egiten nion soinekoaren bizkarreko lokarriak lotzen eta hurbilketa hark bere jainkosa lepoan azken muxu leuna uzteko parada ematen zidan, eskerrak emanaz nigan sorturiko plazer guztiagaitik. Gero, aurpegia biratuz, ahoan muxukatzen ninduan eta adiorik gabe aldapa gora abiatzen zen, Afrikako gazelek zuten bizkortasunaz. Nik kalatxotik jarraitzen nuen ene begiradaz, bere figura txikiagotzen zihoala eta ile busti askeak nola disdiratzen zuen mirestuz.

Hurrengo egunetan, zeremonia berdintsua eskeintzen genion ezkutatzear zegoen eguzkiari. Beti lotsa gabe, inolako damutasunik gabe, beti urrezko hare eta olatuen zipriztinen artean, munduko biztanle bakarrak bagina bezela.

Zoritxarrez ez ginen bakarrak, edo ez geunden nahiko bakartia zen erreñuan: beharbada, norbaitek ikusi egin gintuen eta berria egun batetik bestera Eliseren belarrietara heldu zen. Imajinatuko duzu zer nolako eszena izan genuen, edo hobe esanik, nolako eszena izan zuen neri ez bait zitzaidan batere inporta zer esan, zer pentsa zezakeen (printzipioz legeari begira) nere emaztea zenak. Elise Parisera itzuli zen maletak prestatu bezain pronto eta bere lotsa, gorrotoa, samina eta baita malkoak gurasoen etxean sartu zituen. Dibortzioa eskatu, exijitu dit.

Bestalde, Grand Hôtel-era ere heldu zen kaletako istorioa eta ezer egiteko denborarik gabe, errusiar familia guztiak desagertu ziren, gauean itzalak desegiten diren legez. Afrodita eskaini zizkidan plazerrak nireak izan ziren egun batzuez eta ezin izango ditut ahantzi ez, iraileko egun haiek.

Zure anaia,

Michele Dubois.